



UvA-DARE (Digital Academic Repository)

Hizkuntza paisaia eta eleaniztasuna: hizkuntzen funtzio informatibo eta sinbolikoak (Linguistic Landscape and Multilingualism: the informative and symbolic function of languages)

Cenoz, J.; Gorter, D.

Publication date
2006

Published in
Hizkuntzak ikasten eta erabiltzen

[Link to publication](#)

Citation for published version (APA):

Cenoz, J., & Gorter, D. (2006). Hizkuntza paisaia eta eleaniztasuna: hizkuntzen funtzio informatibo eta sinbolikoak (Linguistic Landscape and Multilingualism: the informative and symbolic function of languages). In J. Cenoz, & D. Lasagabaster (Eds.), *Hizkuntzak ikasten eta erabiltzen* (pp. 267-281). Universidad del Pais Vasco.

General rights

It is not permitted to download or to forward/distribute the text or part of it without the consent of the author(s) and/or copyright holder(s), other than for strictly personal, individual use, unless the work is under an open content license (like Creative Commons).

Disclaimer/Complaints regulations

If you believe that digital publication of certain material infringes any of your rights or (privacy) interests, please let the Library know, stating your reasons. In case of a legitimate complaint, the Library will make the material inaccessible and/or remove it from the website. Please Ask the Library: <https://uba.uva.nl/en/contact>, or a letter to: Library of the University of Amsterdam, Secretariat, Singel 425, 1012 WP Amsterdam, The Netherlands. You will be contacted as soon as possible.

UvA-DARE is a service provided by the library of the University of Amsterdam (<https://dare.uva.nl>)

HIZKUNTZ PAISAIA ETA ELEANIZTASUNA: HIZKUNTZEN FUNTZIO INFORMATIBO ETA SINBOLIKOAK

JASONE CENOZ
Euskal Herriko Unibertsitatea

DURK GORTER
Fryske Akademy/Universiteit van Amsterdam, Herbehereak

1. Sarrera: hizkuntz paisaiaren ikerketa

Hizkuntz paisaia gure inguruan dago aldi oro, baina normalean ez diogu, kontzientzia osoz bederen, erreparatzen. Gero, bat-batean, kalean betidanik leku berean egon arren sekula gure arreta erakarri ez duen idazkun bati erreparatzen diogu. Idazkun horretan zein hizkuntza erabili d(ir)en ikusten dugu, akaso haren hizkuntz ezaugarriez jabetzen hasiko gara, edo geure buruari hura han norik jarri duen galdetuko diogu (ikus 1. irudia).



1. irudia

Eleaniztasuna fenomeno arrunta da, ikuspegi ezberdinetatik azter daitekeena; horietako bat testuinguru soziolinguistikoa da. Aukera bat hizkuntzak testuinguruaren baitan aztertzea da, arreta zonalde jakin bateko hitzezko zeinuek eskaintzen duten idatzizko informazioan jarriz. Ikuspegi horri hizkuntz paisaiaren ikerketa deitu izan zaio, eta honela definitua izan da:

The language of public road signs, advertising billboards, street names, place names, commercial shop signs, and public signs on government buildings combines to form the linguistic landscape of a given territory, region, or urban agglomeration (Landry eta Bourhis, 1997: 25).

Artikulu honek azken puntu hori du aztergai, alegia hizkuntz paisaiaren eta testuinguru soziolinguistikoa arteko harremana. Harreman hori noranzko bikoia da. Alde batetik,

hizkuntz paisaiak testuinguru soziolinguistiko jakin batean diren hizkuntza ezberdinen botere eta estatus erlatiboa islatzen du. Zentzu horretan, egoera zehatz baten emaitza da, eta testuinguru soziolinguistikoa ezagutzeko beste informazio iturri bat bezala har daiteke, errolda, ikerlana, elkarrizketa eta enparauekin batera. Gehienetan, komunitate bateko hizkuntza nagusia gehiago erabiltzen da leku izenetan edo dendetako idazkuntetan, eta hizkuntza gutxitua(k) ez d(ir)a hain usu erabiliko (ikus, adibidez, Ramamoorthy, 2002, Xiao, 1998). Euskal Autonomia Erkidegoan, 'normalkuntza' politika garatu da azken hamarkadetan, eta horrek eragina izan du gobernuak, enpresek zein pertsona partikularrek esparru publikoan idazkunak jartzeko moduan. Bestalde, hizkuntz paisaiak testuinguru soziolinguistikoaren eraketan esku hartzen du, pertsonak heltzen zaien informazio bisuala prozesatzen baitute eta, horrenbestez, idazkunak idatzita dauden hizkuntzak pertsona horiek egiaz mintzaira ezberdinen estatusari buruz duten pertzepzioan eragin baitezake, eta baita, ausaz, haien hizkuntz portaeran ere. Areago, hizkuntz paisaiak hizkuntz erabileran eragina izan lezake. Adibidez, Euskal Herrian euskarak hizkuntz paisaian duen presentzia ugaltzeak gizartean euskararen erabilera ere ugaltzen eragin lezake.

Hizkuntz paisaiaren ikerketa bereziki interesgarria da Euskal Herrikoaren moduko testuinguru elebidun eta eleanitzetan. Izan ere, hizkuntz paisaiak testuinguru soziolinguistikoari buruzko informazioa eskain dezake, eta idazkuntetako hizkuntz erabilera lurraldearen politika ofizialarekin nahiz inkestek agertutako hizkuntzaren erabilerarekin aldera daiteke. Hizkuntz paisaiaren ikerketa interesgarria izan daiteke, halaber, hizkuntza politika ofizialaren eta politika horrek gizabanakoetan duen eraginaren arteko aldeak azter ditzakeelako, idazkun ofizialak eta gizabanakoek paratutako idazkun pribatuak alderatuta.

Artikulu honetan, Donostiako bi kaletako hizkuntzen erabilera neurtu da: Boulevard Zumardikoa, hiriaren erdialdean, eta Erregezainen Kalekoa, hiriaren mendebaldera dagoen Antigua auzoan.

Rosenbaum eta bestek (1977) kale bakar baten hizkuntz paisaia ikertu zuten. Ikerketa horretan, idazkunen zenbaketaz gain aurrez prestatutako elkarrizketa eta elkarrizketak baliatu zituzten, Jerusalemgo Keren Kayemet Kalean. Hizkuntz zeinuen ikerketa idazkuntetan alfabeto erromatarren eta hebrearraren erabilera aztertzea mugatzen da. Ikerketaren emaitzek erakusten dute alfabeto erromatarra arruntagoa dela idazkun pribatuetan (gizabanakoek paratuak) ofizialetan baino, eta agerian uzten dute hebreeraz bakarrik idatzitako zeinuen aldeko hizkuntza politika ofizialaren eta merkataritzako idazkuntetan arruntagoa den beste hizkuntza batzuen (batez ere ingelesa) erabileraren arteko aldea. Gure ikerketa hiri bateko bi kaletan oinarrituta dago, baina testuinguru soziolinguistikoa Rosenbaum eta bestek (1977) aztertutakoarekiko aski ezberdina da: i) bi hizkuntza nagusiak, euskara eta gaztelera, ofizialak dira; ii) Donostian ez dago euskaldun edo gazteleradun gisa defini litekeen berariazko barrutirik, hau da, nagusiki euskal hiztunak edo gazteleradunak bizi diren eremurik.

Artikulu honen asmoa Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntz paisaiaren oinarritzako ezaugarriak deskribatu eta aztertzea da, bereziki testuinguru hiritarlean. Jakina denez, 1979az geroztik, euskara eta gaztelera hizkuntza ofizialak dira Erkidegoan. Urte hartan, euskarak gizartean zegoen lekua berreskuratzeko hizkuntza politika sistematikoa abiatu zen. Tarte horretan, ingelesa Europan zehar gero eta gehiago zabalduz joan da, eta horrek Euskal Herrian ere eraginik izan du. Izan ere, Euskal Herriko eskoletan

ingeleza irakasten da, ikastetxe gehienetan lau urtetik aurrera. Euskal Herrian, ingelesaren ezagutza eta erabilera Europako Erdialde eta Iparraldeko beste lurralde batzuetan baino mugatuagoa da (ikus, halaber, Cenoz eta Jessner, 2000). Ingelesa, bestalde, hizkuntz paisaiaren zati bihurtzen ari da. Merkataritza idazkuntan ingeleza erabiltzen denean, ez dirudi informazio faktikoa helarazteko denik, hizkuntzaren konnotazio balioagatik baizik. Piller-ek (2001, 2003) adierazten duen bezala, jendeak mezua ingelesez dagoela antzeman dezake, eta horrek zenbait balio transmititzen ditu, hala nola haren nazioarteko izaera, etorkizunerako duen garrantzia, arrakasta, sofistikazioa eta aisialdian jokatzen duen rola.

Eusko Jaurlaritzak euskara irakaskuntzako hizkuntza moduan erabilia izan dadin bultzatu du, eta gaur egun haur eskolako eta lehen hezkuntzako haurren %83k eta bigarren hezkuntzako %65ek hizkuntza hori medio ikasten dute (ikus, halaber, Cenoz, 2001). Hezkuntzan euskararen erabilera sustatzeaz gain, Eusko Jaurlaritzak beste alor batzuetan –gobernuko zerbitzuak, komunikabideak edo enpresa pribatuak– euskara irakasteko eta euskararen erabilera sustatzeko berariazko erakundeak sortu ditu. Politika horrek euskararen estatusa berreskuratzean edo hizkuntza indarberritzean eraginik izan du, baina, hala eta guztiz ere, euskara oraindik arriskuan dago: 2001. urteari dagokion inkestaren arabera, biztanleriaren %11,9k bakarrik erabiltzen du euskara gaztelera baino gehiago, eta %6,8k bakarrik uste du euskara gaztelera adina erabiltzen duenik (Euskararen Jarraipena III, 2003). Hizkuntza politikaren anparoan idazkun ofizial elebidun ugari paratu badira ere (ikus 2. irudia), eta dendetan euskararen erabilera akuilatzeo kanpainak egin diren arren (ikus 3. irudia), hizkuntz paisaia bere osoan aintzat hartzen duen politika orokorrik ez dago.



2. irudia



3. irudia

Beraz, oso garrantzitsua da euskara, gaztelera eta beste hizkuntza batzuk –ingelese kasu– paisaian nola hedatuta dauden hobeto atzematea. Espero dugu Donostiako bi kaleen gaineko ikerketa hau Euskal Herri osoan hizkuntz paisaia zabalago aztertzeko lehen urratsa izatea.

2. Ikerketa galderak eta metodologia

Ikerketa honetako galdera zehatzak honakoak dira:

- i. Zein dira Donostiako bi kaletako hizkuntz paisaian ageri diren hizkuntzak?
- ii. Erabilitako hizkuntzen artean alderik ba al dago, idazkun ofizialak eta pribatuak konparatzen direnean?
- iii. Nolakoak dira idazkun elebidunak eta eleanitzak?

Ikerketa honen corpusean bi kaletako hizkuntz paisaiaren inbentario osoa barne hartzen da, Keren Kayemet Kaleko ingelesaren erabileran oinarrituta (Rosenbaum et al., 1977). Hautatutako kaleak Donostian mendebaldera dagoen Antigua auzoko Erregezainen Kalea/Calle de la Escolta Real, eta hiriaren erdialdean dagoen Boulevard Zumardia/Alameda del Boulevard izan ziren. Kale bakoitzak 600 metro inguruko luzera du. Erregezainen Kalea aldi berean etxebizitza eremua eta merkataritza kalea da, eta inguruko merkataritza kale nagusiaren (Matia Kalea) alboan dago. Boulevard Zumardia hiriko merkataritza kale nagusietakoa da. Erregezainen Kanean denda dezente eta zenbait konponketa tailer eta garaje daude, baina, horrez gain, banku bat, bi ikastetxe, osasungintzari lotutako bost zentro eta sei taberna ere badira bertan. Boulevard Zumardian denda, banku eta taberna ugari daude. Denda gehien-gehienak txikiak eta independenteak dira, eta apur batzuk estatu edo nazioarte mailako kateren batekoak. Idazkun gehienak dendetan eta antzeko lokaletan daude, baina merkataritzakoak ez diren idazkun ofizial banaka batzuk ere badira. Azken kategorian gainerako zeinuak daude, hau da, graffitiak eta kartel komertzial zein ez komertzialak.

Gure planteamenduaren barruan zegoen kanean ikusi genituen testu *guztien* argazki digitalak ateratzea. Guztira 1,142 argazki atera genituen (448 Erregezainen Kanean eta 694 Boulevard Zumardian). Askotan testu edo idazkun zein idazkun-multzo beraren argazki bat baino gehiago egin genuen. Azkenean guztira 271 idazkun ezberdin bereizi genituen (167 idazkun Erregezainen Kanean eta 104 Boulevard Zumardian). Argazkiak

kodetzean zailtasunak sortu ziren, eta zenbait erabaki hartu behar izan ziren. Esaterako, idazkun bakar bat bezala kontatzen zen banku edo denda batek aurrealdean izena eta erakusleihoetan iragarki kartelak zituenean. Adibidez, jostailu denda batek erakusleihoan gai ugari zituen, eta guk ia guztiei argazki bana atera genien, horietako askok ingelesezko hitzak ageri baitzituzten, oso letra txikiekin. Azkenean, sailkapenean koherentziari eustearren, denda osoa item bakar moduan kodetu genuen, ‘idazkunak’ inpresio hori ematen baitzuen. Beste kasu batzuetan, ordea, ezberdin jokatu genuen; adibidez, telefono kabina batek kanpoaldean kartelak hizkuntza batean ditu, eta barruan argibideak eleanitzak dira. Kasu horretan, bi idazkun ezberdin kontatu ziren, kanpoaldea barrualdetik bereiztearren.

Alabaina, azterketa unitatearen inguruko arazo metodologikoa ez da beti konpontzen erraza. Emaitzak aurkezterakoan gogoan izan beharreko kontua da hori. Gure irizpidea inpresio orokorra izan zen, testua osotasun handiagoa bateko zati zen ala garbi bereizita ote zegoen. Tentu handiz ibili ginen argazkietan eguzki oihaletako alboetan paratutako testu ñimiñoak edo, esaterako, pasaeran legokeen inork nekez ikusiko lukeen marka zeraman segurtasunezko burdin sarea jasotzerakoan, baina azken buruan gauza txiki horiek lokalaren osotasun handiagoan sartu genituen. Hor arbitrariotasun maila bat badago, baina egileak, horiek bakoitzak bere aldetik kodetu ostean, kasuen %98an baino gehiagotan ados agertu ziren.

Ben Rafael eta bestek (2001) Israelen baliatutako irizpideei jarraiki, 16 aldagai zituen kodetze konbinazioa garatu genuen. Idazkun elebakar, elebidun edo eleanitzen mota ezberdinak hainbat faktoreen arabera bereizi ziren, hala nola hizkuntzen gailentasuna edo kontrol instituzionala; artikulu honetan faktore orokorrenak aipatuko ditugu. Bestalde, gure emaitzetan hainbat alderdi islatu dira: idazkun mota, hizkuntza kopurua idazkunean, idazkuneako hizkuntzak zein diren, idazkun ofizialak vs. pribatuak, lehen hizkuntza idazki elebidunetan, hizkuntzen tamaina idazkun elebidunetan, letra mota idazkun elebidunetan, informazio kopurua hizkuntza bakoitzean eta itzulpena. Emaitza horiek hurrengo atalean aztertuko dira.

Ikerketa honek hizkuntz paisaia aztertzeko datu enpirikoak batzearen garrantzia nabarmentzen du, alor hori hizkuntza gutxituak dituzten egoera eleanitzak nahiz horietan aplikatzen den hizkuntz politika ulertzeko aski lagungarria delakoan. Aldi berean, garbi agertuko da hizkuntz paisaia faktore txiki bat baizik ez dela testuinguru jakin bateko hizkuntz harremanen garapenean.

3. Emaitzak

3.1. Idazkunetan ageri diren hizkuntzak

Hizkuntz paisaiari buruzko aurreneko galdera Donostiako bi kaleetako idazkunetan erabilitako hizkuntzen gainekoa da. Emaitzak segidan doan taulan aurkezten dira.

1. taula. Hizkuntza kopurua idazkunetan (%)

	Erregezainen Kalea	Boulevard Zumardia
1	66	45
2	29	37
3	4	12
4 edo gehiago	1	7

Ikus daitekeenez, Erregezainen Kalean idazkunen bi herenak (%66) elebakarrak dira, eta Boulevard Zumardian, berriz, erdiak baino gutxiago (%45) dira elebakar. Bestalde, bi hizkuntzekiko idazkun gehiago daude Boulevard Zumardian Erregezainen Kalean baino, eta ia bostetik batek (%19) hiru hizkuntza edo gehiago ditu. Elebitasunari eta eleaniztasunari begira, inpresio orokorra ezberdina da Boulevard Zumardian eta Erregezainen Kalean. Boulevard Zumardia, Donostiaren erdialdeko denda gunea, Antiguako auzoan dagoen kalea baino eleanitzagoa da.

Hurrengo galderaz zein hizkuntza erabiltzen diren aztertu nahi da. Emaitzak segidan doan taulan ageri dira. Nagusiki hiru hizkuntza ditugu kalean: hizkuntza gutxitu bat – euskara–, hizkuntza nagusi bat –gaztelera– eta nazioarteko hizkuntza bat –ingelesa–, zeinak nolabaiteko presentzia lortu baitu. Nazioarteko beste hizkuntzek, frantsesa eta alemana kasu, oso leku murrizta dute. Emaitzak 2. taulan jasotzen dira.

2. taula. Hizkuntzak idazkuntan (%)

	Erregezainen Kalea	Boulevard Zumardia
Euskara	11	12
Gaztelera	49	36
Ingelesa	2	4
Euskara eta gaztelera	27	22
Gaztelera eta ingelesa	2	6
Euskara eta ingelesa	0	2
Euskara, gaztelera eta ingelesa	3	10
Hizkuntzen beste konbinazio batzuk	6	8

Donostiako bi kaleak hizkuntza gutxituari, hizkuntza nagusiari eta ingelesari emandako lekuari begira aldera ditzakegu. Hizkuntza gutxituari dagokionez, erabilera portzentajea oso antzekoa da bi kaleetan. Euskara bakarrik ageri da Erregezainen Kaleko idazkunen %11n eta Boulevard Zumardiko %12an. Euskara ageri duten idazkun guztiak hartuta, hizkuntza hori Erregezainen Kaleko idazkunen %41ean dago (%11 elebakarrak + %27 euskara-gaztelera elebidunak + %3 euskara-gaztelera-ingelesa), eta Boulevard Zumardiko %46an (%12 elebakarrak + %22 euskara-gaztelera elebidunak + %2 euskara-ingelesa + %10 euskara-gaztelera-ingelesa). Beraz, euskara gehiago ageri da Boulevard Zumardiko idazkuntan, Erregezainen Kalekoetan baino.

Gizartean nagusi den gaztelerrari erreparatuta ere, zenbait ezberdintasun nabari dira. Erregezainen Kalean, gaztelera idazkun guztien %81ean dago, idazkun elebakarretan (%49) zein elebidun edo eleanizetan. Idazkunen %13an, gaztelera ez da ageri (%11 euskara, %2 ingelesa). Azken kategoria ‘beste konbinazio eta hizkuntza batzuk’ da. Boulevard Zumardian, hizkuntza arruntena gaztelera da, idazkun guztien herenak baino gehiagok (%36) hizkuntza hori bakarrik ageri duelarik. Kopuru horri gaztelera duten idazkun elebidun eta eleanitzak eransten badizkiogu, ikusten dugu gaztelera idazkunen %74an dagoela; zentzu horretan, gaztelera hizkuntz paisaian nagusi da (%36+%22+%6+%10). Beraz, gaztelera hizkuntza gailena da, nabarmen gainera, Donostiako bi kale horietako hizkuntz paisaian.

Ingelesari dagokionez, Erregezainen Kalearen eta Boulevard Zumardiaren arteko aldea txikia da idazkun elebkarretan; horrelakoak dira idazkunen %4 eta %6, hurrenez hurren. Alabaina, ingelesa nolabait presente dagoen idazkun guztiak batuz gero, ohartzen gara ingelesa Erregezainen Kaleko idazkunen %9an dagoela (%2+%4+%3), eta Boulevard Zumardikoen %22an (%4+%6+%2+%10). Aldea nahiko handia da. Atzerriko beste hizkuntzen presentzia mugatua da; frantses eta alemanezko hitz gutxi batzuk jasotzen dituzten idazkun gutxi batzuk baino ez daude.

3.2. Idazkun ofizialen eta pribatuen arteko aldea

Ikerketaren bigarren galderaz gobernuak edo bestelako agentzia ofizialek paratutako idazkun ofizialagoen eta pertsona edo enpresa pribatuek paratutakoen arteko aldea aztertu nahi da. Espero da idazkun ofizialak hizkuntza politika ofizialari lotuko zaizkiola, eta pertsona, denda edo erakunde pribatuak, aldiz, hizkuntza hautatzeko aske sentituko direla.

Normala denez, idazkun gehienak pribatuak dira. Guztira 228 idazkun pribatu (%84) eta 43 idazkun ofizial (%16) sailkatu genituen. Bi kaleen artean alde handirik ez dago. Idazkun ofizialei dagokienez, Erregezainen kalean %17 tankera horretakoak dira, eta Boulevard Zumardian %14. Horrenbestez, Erregezainen Kalean idazkunen %83 pribatuak dira, eta Boulevard Zumardian, berriz, %86.

Hurrengo taulan, idazkun ofizial eta pribatuetako hizkuntzen erabilera erakusten da.

3. taula. Idazkun ofizialetan eta pribatuetan erabilitako hizkuntzak (%)

	Erregezainen Kalea		Boulevard Zumardia	
	Ofizialak	Pribatuak	Ofizialak	Pribatuak
Euskara	14	11	40	8
Gaztelera	39	51	27	38
Ingelesa	0	2	0	6
Euskara eta gaztelera	43	24	27	22
Euskara eta ingelesa	0	0	0	2
Gaztelera eta ingelesa	0	2	0	7
Euskara, gaztelera eta ingelesa	0	4	0	11
Beste batzuk	4	6	0	9
Total	% 100 (n=28)	% 100 (n=139)	% 100 (n=15)	% 100 (n=89)

Idazkun ofizialen zutabeari begiratuta, ikusten dugu Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak besterik –bereizita nahiz batera– ez direla baliatzen. Salbuespen bakarra, bitxia bada ere, eskola baten ikurra da, non latinezko hitz gutxi batzuk baitaude (ikus Erregezainen Kaleko “beste batzuk” eta 4. irudia).



4. irudia

Euskararen presentzia, bai bakarrik bai beste hizkuntzekin batera, handiagoa da idazkun ofizialetan pribatuetan baino, hala Erregezainen Kalean nola Boulevard Zumardian. Euskara idazkunen %41ean dago Erregezainen Kalean, eta %47an Boulevard Zumardian. Gaztelera, bestalde, Erregezainen Kaleko idazkun ofizialen %82an erabilia izan da, eta Boulevard Zumardikoen %54an.

Iturri pribatuetako idazkUNETAN, Erregezainen Kalean %39k gutxienez euskara sartzen du, eta %43k Boulevard Zumardian. Bi kaleotan portzentajea antzekoa da, baina idazkun ofizialetakoa baino apalagoa. Gaztelera Erregezainen Kaleko idazkunen %81ean ageri da, eta Boulevard Zumardikoen %78an.

Ingelesa Erregezainen Kaleko %8an dago, eta Boulevard Zumardikoen %23an; aldea, ikusten denez, aski handia da.

Ondorio gisa, esan genezake euskararen erabileran alde nabarmena dagoela idazkun ofizialen eta pribatuen artean. Bi kaleetan, euskara gehiago erabiltzen da idazkun ofizialetan. Euskara sarriago ikusten da Boulevard Zumardiko idazkun ofizialetan, eta gaztelera baino gehiago ageri da, gainera, idazkun mota horretan, aldea %3koa besterik ez den arren. Datu interesgarri moduan, ingelesezko askoz idazkun gehiago daude (edo eleanitzak, ingelesa barne) Boulevard Zumardian Erregezainen Kalean baino.

3.3. Idazkun elebidun eta eleanitzen osaera

Atal honetan, idazkun eleanitzen osaera xehekiago ikuskatuko dugu. Idazkun elebidun edo eleanitzak hizkuntzek idazkun horietan duten lekuaren arabera azter daitezke. Hizkuntzak bata bestearekiko paratzeko moduak hizkuntza bakoitzari ematen zaion garrantziari buruzko informazio gehiago eskainiko digu. Hurrengo idazkunean, gaztelerrari eta ingelesari emandako kokapen eta antolamendu ezberdinaren adibide bat ikus daiteke.



5. irudia

Lehenik idazkunaren hizkuntza gailenari erreparatuko diogu, eta gero hizkuntzaren letra tamainari, erabilitako letra motari, informazio kopuruari eta itzulpenaren erabilerari. Erregezainen Kalean 38 idazkun elebidun edo eleanitz daude, eta Boulevard Zumardian 61.

Segidan doan taulan, bi kaleetako idazkUNETAN hizkuntza ezberdinek duten pisua alderatzen da.

4. taula. Hizkuntza gailena idazkun elebidunetan (%)

	Erregezainen Kalea	Boulevard Zumardia
Euskara	37	28
Gaztelera	55	67
Ingelesa	0	5
Beste batzuk	8	0

Alor honetan, bi kaleetako idazkun elebidunak ez dira elkarren artean oso ezberdinak: idazkun elebidun edo eleanitzetan, hizkuntza nagusia lehen hizkuntza da, edo gailena. Gaztelera nabariagoa da bi kaleetako idazkUNETAN, eta portzentajea are altuagoa da Boulevard Zumardian. Interesgarria da ingelesak Boulevard Zumardiko idazkunen %5ean posizio gailena duela ikustea.

Hurrengo taulak idazkun elebidun edo eleanitzen tamaina agertzen du.

5. taula. Idazkun eleanitzen tamaina (%)

	Berdina	Gutxitua handiagoa	Nagusia handiagoa	Nag-gutx handiagoa	Nag-atz handiagoa
Erregezainen Kalea	37	16	40	2	5
Boulevard Zumardia	21	15	61	0	3

Bi kaleetan, gaztelerazko letrak handiagoak izan ohi dira, baina Erregezainen Kalean tamaina berdineko idazkunen portzentajea antzekoa bada, Boulevard Zumardian bi kategoria horien arteko aldea handiagoa da. Hizkuntza gutxituari nahiz nagusi eta atzerrikoari dagozkion portzentajeak antzekoak dira.

Hurrengo urratsean, hizkuntzaren hitzeko aurkezpeneko baliatutako letra mota aztertuko dugu. Emaitzak 6. taulan eskaintzen dira.

6. taula. Letra mota (%)

	Berdina hizkuntza guztietan	Ezberdina
Erregezainen Kalea	33	67
Boulevard Zumardia	22	78

Datuek adierazten dutenez, bi kaleetan ohikoagoa da hizkuntza ezberdinetarako letrak ezberdinak izatea; joera hori are ohikoagoa da Erregezainen Kalean.

Hurrengo adibidean, euskara eta gaztelera ageri direlarik euskara hizkuntza gailena duen idazkuna ikus dezakegu.



6. irudia

7. taulan, hizkuntza ezberdinetan eskaintzen den informazio kopuruari buruzko datuak ematen dira.

7. taula. Idazkun elebidun edo eleanizetan eskainitako informazio kopurua (%)

	Berdina	Gutxituak gehiago	Nagusiak gehiago	Nag-gutx gehiago	Atzerrikoak gehiago edo nag+atz-k gehiago
Erregezainen Kalea	32	14	46	3	5
Boulevard Zumardia	15	10	63	9	3

Ikus dezakegunez, bi kaleetan ohikoagoa da hizkuntza nagusian informazio gehiago ematen duten idazkunak aurkitzea, baina badira aldeak. Ohikoagoa da Erregezainen Kaleko idazkuntan informazio kopuru berdina aurkitzea, Boulevard Zumardietan baino.

Segidan doan taulak itzulpenaren erabilerari buruzko datuak erakusten ditu.

8. taula. Itzulpena (%)

	Hitzez hitz	Itzulpenik ez	Zati baten itzulpena
Erregezainen Kalea	33	37	30
Boulevard Zumardia	11	32	57

Taulak agertzen duenez, bi kaleetan itzulpena dago kasu gehienetan. Idazkunen herenak baino pixka bat gehiagok ez du itzulpenik bi kaleetan. Zati baten itzulpena ohikoagoa da Boulevard Zumardian Erregezainen Kalean baino.

4. Emaitei buruzko eztabaida

Artikulu honek Donostiako bi kaletako hizkuntz paisaiaren gaineko hiru ikerketa galderari erantzun nahi dio. Atal hau hiru galdera horiei begira eratu da.

Donostiako bi kaleetako hizkuntz paisaian ageri diren hizkuntzei dagokienez, ikus dezakegu hizkuntza horien artean alde nabarmenak badirela. Boulevard Zumardian, idazkun gehienak elebidunak edo eleanitzak dira, eta Erregezainen Kalean, aldiz, elebakarrak. Bi kaleetan, gaztelera da idazkuntan hizkuntzarik ohikoena, bai bakarrik bai beste hizkuntza batzuekin batera. Kaleen arteko ezberdintasun nagusia da Donostiaren erdialdean dagoen Boulevard Zumardian beste hizkuntza batzuk (batez ere ingelesa eta frantsesa) gehiago erabiltzen direla. Interesgarria da ikustea hiriko kalerik turistikoenean idazkun eleanitz gehiago erabili izanak ez duela euskara gutxiago erabilia izan dadin ekartzen. Egiaz, euskara idazkunen erdietan baino pixka bat gutxiagotan erabiltzen da (%46), eta gaztelera ageri duten idazkunak berriz, %74 dira. Euskara gutxiago ikusten da Erregezainen Kalean, non idazkunen erdiak baino gutxiago euskaraz baitaude (%41), gaztelera %81ean ageri delarik. Beraz, badirudi idazkuntan beste hizkuntza batzuk erabiltzeak –bisitariak gogoan, noski– ez duela euskararen erabileran eragin negatiborik. Atzerriko hizkuntzak baliatzean, badirudi euskara ere hizkuntza horiekin batera sartzen dela.

Atzerriko hizkuntza arruntena ingelesa da, eta hizkuntza horren erabileran ezberdintasun nabarmenak daude bi kaleen artean. Ingelesa Boulevard Zumardiko idazkunen %22an ageri da gutxienez, eta Erregezainen Kalekoen %9an. Aldeak alde, ordea, interesgarria da ikustea ingelesa hiriaren erdialdean ez dauden zonaldeetan ere agertzen dela.

Idazkun ofizialetan eta pribatuetan erabilitako hizkuntzak alderatzean, joera interesgarriak antzeman genituen. Esaterako, euskara gehiago baliatzen da idazkun ofizialetan pribatuetan baino. Ezberdintasun hori Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Donostiako Udalaren hizkuntza politika ofizialari loturik doa argi eta garbi; esparru

horietan, euskara eta gaztelera hizkuntza ofizialak dira. Erakunde ofizialek sektore pribatuak baino gehiago erabiltzen dute euskara idazkuntetan. Datu interesgarri gisa, ordea, idazkun ofizialetan gaztelera oraindik euskara baino sarriago baliatzen da. Beraz, kasu horretan ere euskararen estatusa, hizkuntza gutxituarena alegia, garbi agertzen da. Ingelesaren erabilerari dagokionez, interesgarria da egiaztatzea hizkuntza idazkun pribatuetan bakarrik erabiltzen dela. Horrek adierazten du ingelesaren zabalkundea ez dagoela hizkuntza politika ofizialari lotua.

Hirugarren ikerketa galderaz, idazkun elebidun eta eleanitzak nolakoak diren aztertu nahi zen. Euskarak gaztelerearekiko duen estatus minorizatua agerian jartzen da idazkunen zenbait alderdi aztertzen direnean. Gaztelera nabariagoa da idazkuntetan, gaztelerezko letrak handiagoak izan ohi dira eta hizkuntza nagusian informazio gehiago eskaintzen da. Bi kaleen artean ezberdintasun gutxi dago. Boulevard Zumardian, ingelesa zenbaitetan hizkuntza gailena da, eta bi kaleen artean euskaraz eta gaztelerez emandako informazio kopuruan alde txiki bat bada.

Ikerketa honek egiaztatzen du hizkuntz paisaiak hizkuntzen estatusa islatzen duela, eta euskararen kasuan hizkuntza ikusgai dagoela, Euskal Autonomia Erkidegoaren hizkuntza politikaren ondorioz (Euskal Herriaren eta Frisiaren arteko alderaketari buruz, ikus Cenoz eta Gorter, argitaratzeke). Hizkuntz paisaiak erakusten du, halaber, euskarak gaztelerearekiko duen estatus minorizatua. Bestalde, ikerketak agertzen du ingelesa Euskal Herriko testuinguru soziolinguistikoaren zati bilakatzen ari dela; ahozko komunikazioaren esparruan haren bizitasuna oso baxua bada ere, hizkuntza dendetako erakusleihatetan, karteletan eta iragarki paneletan erabiltzeak balio sinbolikoa izan dezake, modernitateari eta modari lotua (ikus, halaber, Piller, 2001, 2003).

Laburbilduz, esan genezake hizkuntz paisaia ez dela testuinguru soziolinguistikoan hizkuntzen bizindarra neurtzeko tresna osagarri hutsa. Arreta azken emaitzetan jartzen duten beste tresna batzuekin (inkestak, erroldak, elkarrizketak) alderatuta, hizkuntz paisaiak balio erantsia du, idazkunak ikusten dituzten pertsonengan izan dezakeen eraginagatik. Hizkuntz paisaiak pertsonen hizkuntzei buruz dituzten pertzepzio eta jarreretan eragin dezake, eta baita hizkuntzen gizarte mailako erabileran ere.

Bibliografia

Ben-Rafael, E., Shohamy, E., Amara, M.H. eta Trumper-Hecht, N. (2001). *Linguistic Landscape and Multiculturalism: A Jewish- Arab Comparative Study*. Ikerketa txostena, argitaragabea.

Cenoz, J. (2001). *Basque in Spain and France*. In Extra, G. eta D.Gorter (arg.), *The Other Languages of Europe*. Clevedon: Multilingual Matters.

Cenoz, J. and Jessner, U. (arg.) (2000). *English in Europe: The Acquisition of a Third Language*. Clevedon: Multilingual Matters.

Cenoz eta Gorter (argitaratzeke). *Linguistic landscape and minority languages*. *The International Journal of Multilingualism*.

- Euskararen Jarraipena III. La Continuidad del Euskera III. La Continuité de la Langue Basque II. (2003). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- Landry, R. eta Bourhis, R.Y. (1997). Linguistic landscape and ethnolinguistic vitality: An empirical study. *Journal of Language and Social Psychology* 16, 23-49.
- Piller, I. (2001). Identity constructions in multilingual advertising. *Language in Society* 30, 153-186.
- Piller, I. (2003). Advertising as a site of language contact. *Annual Review of Applied Linguistics* 23, 170-183.
- Ramamoorthy, L. (2002). Linguistic landscaping and reminiscences of French legacy: the case of Pondicherry. In N.H. Itagy and S. K. Singh (arg.), *Linguistic Landscaping in India*. Mysore: Central Institute of Indian Languages/Mahatma Gandhi International Hindi University.
- Rosenbaum, Y., Nadel, E., Cooper, R.L. eta Fishman, J. (1977). English on Keren Kayemet Street. In J.A. Fishman, R.L. Cooper and A.W. Conrad (arg.), *The Spread of English*. Rowley MA: Newbury House.
- Xiao, H. (1998). Minority languages in Dehong, China: Policy and reality. *Journal of Multilingual and Multicultural Development* 19, 221-235.